

Haurren eta nerabeen hizkuntza-erabilera eskolaz kanpoko ekintzetan hizkuntza-ereduaren arabera. EAE

Definizioa

Adierazle honen bidez, LMH4ko ikasleek (10 urte inguruko haurrak) eta DBH2koak (14 urte inguruko nerabeak) eskolaz kanpoko ekintzetan zein hizkuntzatan aritzen diren jasoko dugu.

Hedadura

Euskal Autonomia Erkidegoa.

Aldagaiak eta kategoriak

- Guztira (erabilera-tasa esleitura)
- Beti euskaraz
- Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago
- Bietan berdin
- Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago
- Beti gaztelaniaz
- Beste hizkuntza batean

Erabilera-tasa esleitura inkestak emandako erantzunen ugaritasuna laburtzeko eta balio numerikoa emateko egiten den kalkulua da. Kasu honetan aldagai honetan ikasleek emandako sei erantzun posibleak hartu eta honako erabilera-balio hauek esleitu zaizkie:

- Beti euskaraz = %100 euskaraz
- Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago = %75 euskaraz
- Euskaraz gaztelaniaz beste = %50 euskaraz
- Euskaraz gaztelaniaz baino gutxiago = %25 euskaraz
- Beti gaztelaniaz = %0 euskaraz
- Beste hizkuntza batean = %0 euskaraz

Honen bidez, Orik 100erako eskalan batez besteko datua zein den ezagutzeko aukera dago, sei kategorietako informazioa bakarrean laburtuz. Hizkuntza-erabilerrari buruzko ikuspegi orokor bat izatea ahalbidetzen du horrek.

Azpi-adierazleak (gurutzaketak)

- Hizkuntza-eredua:
 - A eredia
 - B eredia
 - D eredia
- Maila:
 - Lehen Hezkuntzako 4. maila

<ul style="list-style-type: none"> ○ Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. maila • Sexua: <ul style="list-style-type: none"> ○ Neska ○ Mutila 	
Iturria(k)	
ARRUE PROIEKTUA	
Iturriaren ezaugarriak	ARRUE Proiektua 2004tik aurrera Soziolinguistika Klusterrak eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak abian jarritako ikerketa da. 2010. urtean ISEI-IVEI erakundearekin egindako elkarlanerako akordioarekin Ebaluazio diagnostikoan berariaz integratutako galderen bitartez Lehen Hezkuntzako 4. Mailako eta Bigarren Hezkuntzako 2. Mailako ikasle guztien datuak biltzen dira. Ikasleek aitorturiko datuak dira, beraz, ikerketak eskaintzen dituenak. Ikerketa honen helburua Euskal Autonomi Erkidegoko ikasleen eskola-giroko hizkuntza-erabilera nolakoa den aztertzea da.
Eragiketaren arduraduna	Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila eta Soziolinguistika Klusterra.
Hasierako datua eta maiztasuna	2011n egin zen lehen aldiz. Bi galdetegi mota dira, bata laburra, bi urtean behin egiten dena, eta bestea osatuagoa, lau urtean behin egiten dena. 2011n, 2013an eta 2015ean eskolaz kanpoko jarduerari buruzko informazioa jaso da, 2017an ez.
Oharrak	Datu orokorra (<i>guztira</i>) ikasleen erabilera-tasa esleitu da. Tasa hau inkestak emandako erantzunen ugaritasuna laburtzeko eta balio numerikoa emateko egiten den kalkulua da. Erabilera-tasa esleituaren bidez, 0tik 100erako eskalan batez besteko datua zein den ezagutzeko aukera dago.
Informazio osagarria	
Argitalpenak eta txostenak	Arrue 2011 2015 Txosten teknikoa e.pdf